

Gabonak salbatu

Amagoia Mujika
Telleria

Gabonak salbatu behar dira», esan du baten batek. «Hain garrantzitsuak al dira ba Gabonak?», galdetu du besteak. Herriko merkatariak urduri daude, Gabonak oso garrantzitsuak direlako haientzat. Eta tabernariak... larri daude tabernariak.

Gabonetan zuhur ibiltzeko, kontuz, ez laxatzeko eta ahal dela etxean geratzeko agindu digute politikariek. Eta badaezpada, haien aholkuei kasurik ez egiteko asmoa bagenu edo, lasaitu egin dituzte pixka bat neurriak. Batzuetan herritarrek tenis partida batean bezala sentitzen garela iruditzen zait, burua alde ba-

tera eta bestera. Zientzialariak, medikuak, alde batean; politikariak, bestean. Bada denboratxo bat pilotarik ez dugula ikusten eta beldur gara edozein unetan sekulako pilotakada jasoko dugula aurpegiaren erdi-erdian. Badakigu berriro olatua altxatzen bada, berriro herritarren errua izango dela. Ea oraingoan zein adin tarteri tokatzen zaion errudunaren harria arrastaka eraman beharra.

Uste dut Gabonak guk nahi duguna izango direla. Haurra nintzela, baserrian Gabon jendetsuak izaten genituen. Mahaia beteta, aulki batean bi haur edo bi ipurdi estu, basoak erdibana. Amonak goiko armairutik ateratzen zituen seku-

lako zainzuri poteak. Auskalo zenbat zainzuri kabitzen ziren han, mordo bat. Finak izaten ziren zainzuriak, ez ziren goi mailakoak. Eta guri mundialak iruditutako afari zaratatsu haietako zainzuri eskas horiek. «Hainbeste jenderentzat ezin da bestelakorik ekarri», amonaren lezioa.

Aurten mahaian tokia sobera egongo da eta zainzuri mamitsuak izango ditugu, goi mailakoak eta lodiak. Zarata ere, neurtuagoa. Hortik aurrera, gure esku gustura egotea. Gabonak salbatu ditzakegu, nolakoak nahi ditugun arabera. Dagoenean barra-barra, ez dagoenean negarra. Edo ez. •

Negargarria

Xabier Mikel
Errekondo

Etxeratuta nago gaixorik, baja luzean, urrian izan nuen ebakuntza baten ondorioz. Eta, Euskaraldia-
ren beharrik gabe edo harengatik ere, ohitura dut etxean nagoenean eskal hedabideak pizteko, nagusiki goizez Euskadi Irratia eta arratsetan ETB. Irrati zaleagoa naiz, lagungarri egiten zait etxeko lanetan, bereziki sukaldean. Irratiak programa anitzak eta oso onak ditu, aldiz, telebistan gehienak eskasak, salbuespenak salbuespen. Koronabirusak ondorio larriak eragin ditu, baina itxialdiak eta egungo erdi-itxialdiak ere beste hainbeste albo kalte ikusezin, eta osasu-

na hain preziatua den garai hauetan badirudi ETBri bost axola diola programazioak sor ditzakeen min psikologikoak.

ETBko zenbait inizatibek hotzikara eragiten didate. Atzo Itoitz talde aitzindariaren “Lau Teilatu” paregabea izan zen, gaur Bob Marley handiaren “No woman no cry” abesti mitikoa. Biak asko maite nituen, eder zitzaizkidan traka etengabearekin belarri minduek «kito!» esan arte. Biak ala biak gorrotatzera bultzatu nau ETBk, egunean 30 aldiz! «Ez negar egin...» «Ez negar egin...» bakoitza Tysonen ukabilkada bat zait, orain begian, gero sudurrean edo matrailean, gi-

belean... ia KO geratu arte, eta defentsa guztiak lehertu dizkidanean doinu gorrotagarria garunean iltzatzen zait eta isilean abesten dut sukartu arte. Irentsi ezina zait eta “negar egiten” dut barnerratu diguten arauaren kontra. Egunero negar uholdea eragiten dit ETB-penitentzia-gurutzeak eta, nahiz ziur izan belarri mindu gehiago badela, ez dut ETB gorrotatuko, badakidalako negar egitea osasungarria dela oso. Maite nautenek aspaldi zidaten erakutsi. Gogoz egingo dut negar. Pena abestiak.

EiTB Maratoiaren zilegitasuna... nahia-
go dut beste baterako utzi. •